

Arberoa ikastola  
05 59 29 76 23  
[arberoakoikastola@gmail.com](mailto:arberoakoikastola@gmail.com)

## Xehetasun pratikoak

### **Ikastolako ordutegia / egutegia**

Astelehen, asteart, ostegun eta ostiralez idekia da ikastola, goizetan 9 orenetan hasten da eguerdi arte, eta aratsaldetan 1:30tan 4:30 arte.

Haurzaindegia, goizetan : 7:30 9:00  
eguerdietan : 12:00 13:30  
aratsaldetan : 4:30 6:15

Ikasturteko egutegia webgunean duzue eskuragarri. Ikasleen huts egiteen berri telefonoz, meilez edo paperez ematea eskatzen dizuegu.

### **Jantegia**

Haurrek ikastolan jaten ahal dute, izena ematen da ikastola sartzean den taulan.

9tan deituko dugu bazkarien manatzeko.

Bazkaria 3,40 eurotan da, Bertakoa sukaldari banatzailearen eskutik.

Haurrek etxetik ere ekartzen ahal dute haien bazkaria, ikastolako hozgailu eta labea erabiltzen ahalko dituzte.

### **Ikasle materiala**

Galdegina da haur bakotxari zaku bat eramatea egunero, aldatzeko jantziekin barnean ( edozein adinetakoa izanik ere!).

Urte hastapenean haur bakotxak hortz eskuil bat eta baso bat ekartzen ahal ditu ere zorro batean, eguerdietan hortzen ikuzteko.

Ikasle bakotxak oihal bat ekartzen ahal du ere jangelako, baita xapinak geletako.

Ama ikastolako haurrek ñuñu bat ekartzen ahal dute, bereziki loaldiko. Galdegiten dizuegu ñuñu bakar bat ekartzea eta zinez ñuñu bat izatea eta ez haurrak jostatzeko erabiltzen duen panpin bat.

Ikasteko material guzia ikastolak eskaintzen eta banatzen die ikasleei.

Haskariak ere ikastolak ditu antolatzen eta zerbitzatzen.

### **Urtebetetzeak**

Urtean zehar ikasleek haien urtebetetzekari bixkotx bat ekartzen ahal dute ikastolara gelakideekin partekatzeko. Goxokirik aldiz ezin dute ekarri !

Bixkotx bat sukaldatu aitzin irakaslea abisa ezazue alergien berri hartzeko.

### **Liburutegia**

Burasoei eta hurrei idekia zaien liburutegi bat bada ikastolan, DVD, diska edo liburu bat hartzean apalean den kaierean idaztea galdegina zaizue.

### **Komunikazioa**

Irakasle taldeak meilez komunikatzen du gehienetan, halere familia bakotxak ama ikastola sartzean gutunazal bat badu bere izenean paperezko komunikazioarentzat, zaindu !

### **Webgunea**

[www.arberoaikastola.org](http://www.arberoaikastola.org) da gure webgunea. Hor egunez egun ikastolan egiten dugunaren berri har dezakezue. Beste hainbat xehetasun ere aurkituko duzue. Bisitatu !

**Materiala**

Ikasleek gorputz heziketa duten egunetan, mugitzeko jantzi eta zapeta egokiekin etorri behar dute.